

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	NEIKER. Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea
2. Sektorea:	Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailera atxikitutako erakundea.
3. Langile kopurua:	190
4. Webgunea:	https://neiker.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Euskadiko nekazaritza-abeltzaintza eta basogintza sektorearentzat egiten dugu lan.</p> <p>Sektorearen lehiakortasuna hobetzen, gure ingurumena zaintzen, gure espezie eta arraza autoktonoak kontserbatzen eta elikagaien segurtasuna bermatzen laguntzen dugu. NEIKERek zeregin horiek gauzatzen ditu 1851n sortu zenez gero, nazioartean aintzatespena eta kualifikaziorik handiena duen profesional talde baten lanari esker.</p> <p>Gure ehun produktiboari eta gizarteari zerbitzua emateko borondatea duen erakunde publikoa gara, eta bikaintasunean oinarritutako kudeaketa eredu baten alde egiten dugu, zeinaren funtzionamendua nazioartean aitortutako kalitate irizpideen arabera arautzen den.</p> <p>2019an, BRTA Euskadiko Partzuergo Zientifiko-Teknologikoan sartu da NEIKER. BRTAren helburu nagusia da lankidetzeta dinamika bat ziurtatzea, Euskadik dituen erronka teknologikoei eta industrialei erantzuteko eta nazioartean duen posizionamendua hobetzeko.</p> <p>Lantalde honen gaitasunari esker, ezagutza eta soluzio berritzaile eta transferitzeko modukoak sortzen dira, eta horiek balio erantsia eman eta hobetu egiten dute nekazaritzako elikagaien eta basogintzaren sektorearen lehiakortasuna.</p> <p>Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailak ezarritako helburuekin bat etorritik egiten du lan NEIKERek. Hauek dira helburuak: ingurumenarekiko eta gure ingurunearen iraunkortasunarekiko ahalik eta errespeturik handiena mantentzea, eta gure ingurunearen garapen ekonomiko eta sozialari modu aktiboan laguntzea.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Eva Ugarte
Helbide elektronikoa:	eugarte@neiker.eus
Telefonoa:	

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	BIKAIN ziurtagiria euskararen normalizazio bidean aurrera egiteko
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>NEIKER bezalako erakunde publiko batentzat garrantzitsua da euskararen normalizazioan lanean aritu eta BIKAIN ziurtagiria lortzea. Orain arte, euskararen normalizazio bide horretan NEIKERek lortu ditu erabakiak hartzeko eskumena duen Euskara Batzordea eta denboran zehar onartuz joan den Euskara Plan eta Ekintza Planak ere. NEIKERek badu ere euskara dinamizatzailer figura eta honen ardura izan da BIKAIN ziurtagiriaren eskaera bultzatzea.</p> <p>Euskararen Normalizazioaren bide honetako puntu batean zalantza hau sortu zen NEIKERen bertan: bidean aurrera egiten jarraituko dugu ala bidea egiten lagunduko digun BIKAIN ziurtagiria eskatzeko momentua heldu da? Galdera honi erantzunez, egiteke asko bazegoen ere, 2022.eko urte hasieran BIKAIN ziurtagiria eskatzeko erabakia hartu genuen. Erabakia hartzerakoan helburua bikoitza zen: aurrerapauso sendoak ematen lagunduko zigun ebaluazio-txostena lortu eta, hala egokitzen bazitzaigun, BIKAIN ziurtagiria eskuratu.</p> <p>BIKAIN ziurtagiria eskatze hutsaren onurak hurrengoak izan dira NEIKERen:</p> <ul style="list-style-type: none">-Eskara prozesuak berak atzera begiratu eta barne hausnarketa bat egitea eskatu du Euskara Batzordean: non gaude?, zer egin dugu orain arte?, zein izan da egindako bidea?, zer lortu dugu?, non gaude hankamotz?.Eta denbora luzean egindako ahalegin eta lortutakoak batu eta aurreratutako guztia batera ikusteko aukera eman digu.-Gainera, eskaerako prozesu horretan hainbat kide inplikatu dira eta zabalkunde lanak egiteko aukera paregabea izan da barne komunikazioen bidez, euskarari barne ikusgarritasuna emanaz. <p>BIKAIN oinarrizko ziurtagiria lortzeak zera esan du NEIKERentzat:</p> <ul style="list-style-type: none">-Orain arte egindako bidea erraza izan ez bada ere, ez da makala lortutakoa eta kanpoko aitortza jaso dugu oinarrizko ziurtagiriarekin.-Euskararen normalizazioan egindako lana ziurtatzen duen BIKAIN ziurtagiria motibazio iturri garrantzitsua da NEIKERen dauden kide guztientzat eta, bereziki, euskaltzaleentzat.-BIKAIN ziurtagiriak eskatzen zigun lege langa gainditu dugu eta beraz Eusko Jaurlaritzatik eta Lege Dekretuek eskatzen digutena betetzen dugula ziurtatu dezakegu.-Ebaluazio prozesuan kanpoko adituek ikusi/entzundakoaren arabera ebaluazio-txostena jaso dugu:<ul style="list-style-type: none">--NEIKERentzat lagungarri diren jarraibide praktikoak proposatu dizkigute--Ahaleginak non zentratu behar ditugun erabakitzen lagunduko digun dokumentu baliagarria da ebaluazio-txostena: Hizkuntza-irizpideakgurer nola ekarri eta protokolo berrien beharra dagoela bistan utziz, besteak beste.--Ebaluazio-txostena hurrengo urteetako Ekintza Planetarako oinarrizko dokumentua izango da.-BIKAIN ziurtagiria lortu dugula zabaltzeko barne komunikazioak egin dira, euskarari barne ikusgarritasuna emateko bidean jarraituz. Eta webgune eta sare sozialetan lortutakoaren berri eman dugu.-BIKAIN ziurtagiria gure eraikinetako sarreran bistan jarri dugu harrotasunez euskararen normalizazio bidean tinko jardun garelako erakutsiz.

Eta hemendik aurrera zer?

- Gure antzeko egoeran dauden erakunde guztiekin BIKAINera aurkeztea tresna lagungarri bezala ulertzeak ekarri dizkigun onurak partekatu nahi ditugu.
- Euskararen normalizazioko gure bide-orrian kontuan hartu beharreko ebaluazio-txostena eskuartearen dugula, hemendik aurrera zilarrezko BIKAIN ziurtagiria lortzeko helburuarekin tinko jarraituko dugu lanean.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

EUSKARA BATZORDEA

Ainara Zarraga
Komunikazio Arloko burua
ZUZENDARITZako kidea

Eva Ugarte
Baliabideetako zuzendaria
ZUZENDARITZako kidea

Sorkunde Mendarte
Euskara dinamizatzailea

Nerea Mandaluniz

Aitor Cevidanes

Amaia Etxezarreta

Iratxe Elorriaga

NEIKER
MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA